



Izenburua: **Oilasko hegalak**

Egileak: **Eider eta Arrate Rodriguez**

Saila: Albumak, 22

ISBN: 978-84-9109-587-3

Salneurria: 15 € (BEZ barne)

Orriak: 40

Erein argitaletxea

Badira urte batzuk istorio honen haria trabatuta gelditu zitzaidala.

Banuen beti oilasko hegalak jaten zituen ama bati buruz zerbait idazteko gogoia. Oilasko erre bat ikusten nuen, familia normatibo bat haren inguruan eta ama bat soberan gelditutako hegalak jaten. Ohar gisa jasota nuen irudia. Eta egun batean, irudi horrek atea jo zidan, hazi egin nahi zuela eta ureztatu egin nuen. Horrela sortu zen ipuina. Ondoren, Arrateri erakutsi nion, ilustratu nahi ote zuen galdetu nion, baina une hartan ezin zuen, denboragatik, eta Mexikora joan behar izan zuen denbora hori aurkitzeko.

Albumen zailtasuna da istorio zailak sinpleki kontatu behar dituztela. Irudi txikien bidez mundua azaldu. Hitz gutxitan dena esan.

Eta nik oilasko baten irudia nuen buruan, ketsua, eta familia bat inguruan, besterik ez. Eta irudi hori kontakizun bilakatzeko autoenkargua, bi diziplina solasean jarrita.

Albuma hori era bada eta: bi diziplina dialogatzen jartzea, literatura eta arte plastikoak.

Eta album hau ere beste zerbait gehiago ere izan zen, bi ahizpa dialogatzen jartzea, Arrate Mexikon baitzegoen, eta ozeano bat zein handia izan daitekeen orduan konturatu bainintzen. Han egon den bi urteetan gu bion artean egon den harietako bat izan da proiektu hau, bi kontinentetan zeuden bi gorputza lotzeko haria.

Banuen beste irudi bat iltzatua, antzinagokoa. Nik uste nahikoa arketipikoa dela hegalak hazten zaizkion gizakiarena. Ume-umetatik nuen gordea nire barruan liluraz eta nazkaz bilduta. Hegan egiteko ametsarekin eta beldurrarekin batera. Hori ere atera da album honetara.

Eta azkenik bidaia dago, literaturan erruz erabilitako sinboloa hau ere. Kasu honetan bidaiak bidaiaria bainoago besteak aldatu ditu, joan ez direnak, gelditu direnak.

Iñaki Aldekoak esan zidanean zer ipini liburuaren kontra-azalean, zer laburpen, zer... nahiko argi izan nuen eta berak ere bai: “Nola banatu oilasko bat?”. Itxuraz egunerokoa eta ezdeusa eman dezakeen ekintza horren atzean bizimodu eta bizi ikuskera oso bat gorde daiteke. Nola batek zer batek askok baino askoz gehiago konta dezake.

Arraterekin lan egitea plazer hutsa izan da. Testua irudien bidez irakurri du eta irakurketa inteligente eta arretatsu guztiek egiten duten moduan, ez zeuzkan testura eta esanahiez jantzi du abiapuntuko ipuina. Batez ere testurez, esango nuke. Batetik, oso haragizkoak dira bereak sortutako pertsonen irudiak, haien aldarte anitzen inguruko arrasto asko ematen dizkigute, posturengatik baina baita aurpegikerengatik ere; bestetik, paisaiak daude, mundu eta klima askotarikoak, eta hauek ere usaindu egin daitezke eta duten tenperatura sumatu. Baina batez ere, uste dut Arrateren irudien indar nagusia dela emozio sortzaile direla, emozio gama zabal bat sortzeko gaitasuna dauka pintzelen bitartez. Nire ustez karga sinboliko handiko irudiak sortu, oso aberatsak eta testutik aparteko irakurketak proposatzen dituztenak. Oso pozik nago horrekin.

Bera oso exijentea da lanean eta etengabeko doiketak egiten aritu da kasik bi urtez. Bereziki zaindu dugu testua eta irudia 1 +1 berdin 2 ez izatea, baizik eta bien arteko uztardurarekin sinergia sortzea, 1+1berdin “ez dakigu zenbat” izatea, baina esperogarria ez den zerbait izatea bilatu dugu.

Album hau sentitzeko sortua izan da: bakardadea, berekoikeria, haserrea, elkartasuna, askatasuna eta maitasuna bezalako sentimenduak jorratzen ditu irudiz irudi, hitzez hitz eta kolorez kolore. Baina hausnartzeko pentsatuta ere badago, haur zein gurasoentzat, bakarka edo familian; familiako kideek osatzen duten ekosistema beste begi batzuetatik ikusteko gonbita da, eta posible balitz askatasun gogoia piztea nahi nuke, katarsi domestiko txikiak sortzea, jakinda oso zaila dela, baina jakinda, baita ere, beharrezkoa ere badela.

Eider Rodriguez
Donostia, 2020ko azaroak 25